

LAPURRETA!
KALE-IRAKURRALDIA
AZAROAK 18 11:30
BITERIKO ATARIA





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu

lapurreta!

Kale irakurraldia

azaroak 18, 2018 11:30

Biteritik

Bost geltoki lotuko dira ibilaldian, 5 kutzazain automatiko:

La Caixa, Laboral Kutxa, BBVA, Sabadell eta Kutxabank

1. geltokia

Andoni Tolosa

Eduardo Galeano

Gotzon Barandiaran

Maria Merce Marçal

Miren Amuriza

1. Amatasuna

2. Ilargia

3. Atzeman dute lapurra

4. Kitarra batek Tom Waitsen...

5. Imajinatu familia bat

Amatasuna

Memoria galdu eta ahantzirik, hiltzailea bere krimenaren lekura itzultzen den bezala, eta itzalean hilik uste zuena aurkitzen du, zergatik jakin gabe esklabo egiten zaio, zakur bilakatzen da, etxea, heriotzaren eta salbamenaren saria ostuko liokeen ebasle ausentearen aurka gerizatzen du, horrela nintzen ni amodioaren lekura itzuli.

Ilargia

Ilargia lurra bisitatzeaz irrikan zegoen.

Zalantzan zeraman luzaro, eta etortzeari eman zion. Une baterako

etortzea beste asmorik gabe, zuhaitz adaburuan trabaturik

geratu zen zerura itzultzeari ekin zionean.

Ilargia adar artean betirako, bakardadean, preso geratuko zelakoan,

etsiturik zegoen; baina, hara non, zorionez, otso bat

oihanaren sakonetik agertu eta gau osoa eman ilargiarekin

jolasean: muturrarekin laztandu, bere sabel xurian kilimaka,

eta zenbait txiste —ez hain txarrak— kontatuz.

Eguna argitzear zela, otsoa adakeraz libratu eta ilargia zeruan goiti

galdu zen.

Ez zen, ordea, bakarrik joan: otsoari itzala lapurtuz baizik, honek

sekula ahantz ez zezan iragan gaua.

Harrezkero otsoaren ulua.

Geroztik, erreguka ari zaio ilargiak ebatsi itzala itzul diezaion.

Ilargia, ordea, gorra bailitzan darrai.

Atzeman dute lapurra

Atzeman dute lapurra

urteetan ebatsitako berbak eta guzti.

Polizien telebista kateek erakutsitako irudietan,

harrituta begiratu die

diruz-lagunduta zituen hiztegiei,

atsekabeturik oroitu du

sobornoetarako ez dagoela zekenik.

Ez ei dute torturatu beharrik izan,

ez baitago, antza, torturatu beharrik.

Borondatez aitortu du non nori noiz:

albistegietan, erredakzioetan,

batzar nazionaletan, batzorde exekutiboetan,

berrehun euro banatik gorako bazkalondoetan,

izenburu hutsaletan, pankarta maiztuetan,

komunikatu isilduetan, hileta antzeztuetan.

Aske utzi dute lapurra urteetan ebatsitako

berbak eta guzti,

ez ei dute aitortu duena ulertu.

Artean, kaltetuek gaztigua ebatzi

eta heriotza zigorrera kondenatu dute,

hilketa mugagabea egotzi diote,

aurrez, denboraz, odol hotzean, anker

egituratuko berbazidua.

Itzultzaileak ikusle oldearen

hanka azpietatik ihes egin eta

asilo politikoa eskatu du

hizkuntzarik ez dagoen herri batean.

Kitarra batek Tom Waitzen ahotsa lapurtuko balu

Kitarra batek

tom waitzen ahotsa

lapurtuko balu

eta bere akordeetan

euririk ez dagoen lekura eraman

pianoak eta akordeoiak

aspaldidanik mutu dirauten mundura

galdera da

guztiok inozenteak bagina

kale zakur gosetienak ere

klake dantzatuko balu

bere gosea aseturik

ez balego zergatik

zikinkeria artean paseatu beharrik

galdera da

ahots garratz baino lagunik

ez balego

gure alde beltza gogoratuko ligukeenik

zeinarekin

gau bakartietan bat egin

galdera da

ez balego galtzailerik?

ez balego pasiorik?

ez balego lekurik non nekea pausatu ahal?

Imajinatu familia bat

Doinua: Leiho ertzetik entzun dezaket

(Jose Ignazio Ansorena)

Imajinatu familia bat

egin duena eztanda:

aita fabrikan behin ta birritan

kaleratua izan da,

amak oraindik itxaropentsu

Inem-en hartu du txanda,

alperreko propaganda,

agortu baita demanda.

Urratsez urrats gainditu ezinez

hipoteka baten langa,

kale gorrira bota dituzte

ostikada bat emanda.

Seme gazteak galdetu die

“Zer gertatu zaigu baina?”,

amak malkotan “Bankuak bota egin gaitik alajaina!

Itzuli ezin genialako

hipotekaren ordaina,

Seme, ez haut nahi engaina,

zorrek hartu ditek gaina.

Nahiz ta jokoan jartzen diaten

langile soilon oraina,

gaur ere askok gure kontura

edango ditek txanpaina”.

Zenbat despido, zenbat etxe huts,

eta zenbat hipoteka,

langabetuen zerrendak daude

jada goraino beteta...

Ta bitartean bankuek egin

nahi digute lapurreta,

erreskatea gordeta,

haziz doa desoreka.

Mugitu egin beharko dugu

honi emateko buelta,

bankuengandik ez gaitu inork

erreskatatuko eta.

2. geltokia

Arantxa Urretabizkaia

Billy Collins

Castillo Suarez

Harkaitz Cano

Marta Navarro Garcia

1. Gorpu Lapurrak

2. Aurkitu nauzu goizean

3. Poesiaren problema

4. Kontatuko dizuet nire istorioa

5. Pribatizatzea

Gorpu lapurrak

Ez ginateke hondoratuko
aparraitzezkoak bagina, Donald Siegel.
Egunero hortzak garbitu ondoren
ematen dugun muxuari
hamaikagarrenean hartuko ez bagenio
gorpua lapurtu diotenaren zaporea.

Maite dugunaren irribarrea hilzorikoen sehaska ez balitz.

Ez da gure errua.
Guk beti maite dugu pertsona bera
gorputz ezberdinetan izan arren.
Baina maite dugun jendea aldatu egiten da.

Baina hondoratuko ez bagina, Donald,
eroriko ez bagina
ez genituzke hondoan daudenak ezagutuko.

Ez genuke elkar ezagutuko, Donald,
aparraitzezkoak bagina.

Aurkitu nauzu goizean

Hondarraren gainean biltzen den harri koloreduna bezala
lehortu ondoren,
gristatu delako,
desengainaturik, erortzera uzten den harri koskorra bezala
aurkitu nauzu
goizean,
sartu baizik nahi ez duen
lainoa leihoan bezala
kotxearen faroek bereganatu duten
intsektua bezala
liburu bat lapurtzen hartu duten
estudiantea bezala
larre leun baten erdian
ahaztutako kotxea bezala
haizean dantzatzen diren
eskutitz bateko pusketak bezala
estazio batean abandonatutako
maleta zahar bat bezala
jende artean
biluzik aurkitzen dena bezala
asperraldiko
aho-zabaltze bat bezala
bide ertzean nornahiren omenaldiz
jarri den harri bat bezala
kalendarioaren

orri zahar bat bezala

itsas barreanean

alferki oihuztatzen den sirena bezala

luzaroan haragian irauten duen kolpearen

oinazearen oroipena bezala

amets gaiztozko gau batek

lardaskatutako ohe bat bezala

hitz esan gabe bat bezala

hitz entzun gabe bat bezala

hitz ulertu gabe bat bezala

hitz pentsatu gabe bat bezala

hitz arrotz bat bezala

hitz ahaztu bat bezala

aurkitu nauzu goizean,

beste norbaiten izenaz markatutako koilarea daraman

zakur arkakusoz betetako bat bezala.

Poesiaren problema

Poesiaren problemaz jabetu nintzen
gau batean hondartzan nembilela
—Floridako hondar hotza nire oinetan,
izar festa bat zeruan—,

poesiaren problema da
poesia gehiago idaztera bultzatzen duela,
akuario betean arraintxo gehiago,
untxitxo gehiago saltoka
untxi amen sabeletik ihintzaz bustitako belazera.

Nola amaituko da, ordea?
Ez bada eguna iristen,
zeinean munduko gauza guztiak
munduko beste gauza guztiekin alderatu ditugun,

eta ez dagoen ezer egitekorik
ez bada koaderno isilik itxi
eta eseri eskuak mahai gainean jarrita.

Poesiak pozez betetzen nau
eta haizean gora noa luma bezala.
Poesiak penaz betetzen nau
eta behera noa zubitik botatako katea lez.

Baina normalean poesiak betetzen nau
poesia gehiago idazteko grinaz,
ilunpean eseri eta itxaron
sugar txiki bat nire arkatzaren puntan agertu arte.

Eta horrekin batera, lapurtzeko desioa,
besteen poemetan sartzeko gogoa
linterna eskuan eta aurpegian maskara bat.

Izan ere, lapur banda galanta gara gu
litxarreroak, zorro ebasleak,
esan nuen nire golkorako
uhin hotz batek oinak bustitzen zizkidan
eta itsasargiak bere megafonoa itsas gainean mugitzen zuela,
Lawrence Ferlinghettiri ostutako irudia,
hain zuzen,

Lawrence Ferlinghetti,
San Franciscoko poeta txirrindularia
zeinaren liburua jolas tokia bailitzan
eramaten nuen nire uniformeko patrikan
gora eta behera institutuko korridore arriskutsuetan.

Kontatuko dizuet nire historia

Kontatuko dizuet nire historia,
munduko itsaslapurrik zitalarena,
besteei ondasunak lapurtzen zizkiena
harik eta bere duintasun guztia
ebatsi zioten arte.

Ez zen printzesa bat izan,
errege boteretsu baten alaba,
arotz xume baten iloba baizik.

Berak esan zidan
Mediterraneoko itsasoaz landara
bazeudela lur emankorrangoak;
berak erakutsiko zizkidala
merkatari aberatsen etxeak zeintzuk ziren.

Eta nik sinetsi egin nion.

Sinetsi egin nion
bere begien berdetasuna bezalakorik
inoiz ez nuelako ikusi,
bere jenio biziak
beste aukerarik ez zidalako ematen.

Nirekin etorri eta
ezer gabe utzi ninduen
itsaso bizi batek bustitako esparruan
ezer gabe ez nintzela ezer esanez.

Pribatizatzea

Arratsaldetan Osasun etxeak ixten hasi zirenean
ez nuen protestarik egin,
goizak libreak bait nituen.

Osasunaren jectioan era berriak
onartu zituztenean,
ez nintzen kezkatu,
modernoak bait naiz eta berrikuntzak gustatzen bait zaizkit.

Etorkinei osasun asistentzia ukatu zietenean,
ez nuen protestarik egin,
hemengoa bait naiz.

Osasungintza pribatuan
oheak konzertatzen hasi zirenean,
ez nuen protestarik egin,
sasoiean bait nago.

Ohiko tren zerbitzua ezabatu zutenean
ez nuen protestarik egin,
isolatua ez dagoen herri batean bizi bait naiz.

Hezkuntza publikoko

Eskola jangelan beka kendu zituztenean,

ez nuen protestarik egin,

seme alabik ez baititut.

Hospitalak esleitu zituztenean

30 urteko luzapen aukerarekin

higiezin enpresa, banketxe eta inbertsio funtsei,

nere osasuna beraien burbuilan sartzen saiatu zirenean,

protesta egiten saiatu nintzen,

baina honez gero protestak pribatizatu egin zituzten.

Orain norbaiten bila nabil

privatizatzaileetat defendatzen lagundu nazala,

baina jada ez da inor osasuntsu geratzen.

Ikasgaia ikasi dut.

Hortzak puskatu behar zaizkio sistemari

bere urrezko haginak guri saldu baino lehen.

Piztiek arrastaka eraman gaitzaten baino lehen,

gurutzez eta kartazalaz betetako beraien kobazuloetara

gure eskubideak odoljarioan bihurtu

baino askoz ere lehenago, askoz ere .

3. geltokia

Beñat Sarasola

1. Maitasuna

Gorka Setien

2. Iragana

Hedoi Etxarte

3. Zer inporta dio lapurretak

Jule Goikoetxea

4. L)

Nijole Miliauskaite

5. Askatasun kalean

Maitasuna

Baliteke zuk

neska gizen

argal eta beldurti horrek

lapurtutako gorputz batean

maitatzen bizitzeko

trikimailuren bat izatea

menderatuta maitatzeko

etsia emandako

lurralde batean.

Baina

maitasunak

zu merezi ote zaituen jakiteko

askatasuna

praktikatu beharko duzu

lehenengo.

Beharbada zuk

neska alai

itsusi eta arriskutsu horrek

trikimailuren bat duzu

mundua zapartatu gabe

menderakuntza zapartzeko.

Iragana

begi hingatuek ezustean harrapatutako

anbar zati baten antzekoa zara, itsas algen artean

paseo luze eta nekatuen ostean

hain handi eta astuna —ia ezin dut sinetsi

benetakoa zarena

ondo garbitu behar zaizu

leundu

argia eta beroa zabal ditzazun

zure edertasun arrotz asaldagarria

piztu

tiradera zabalitzean anbar usaina

inoiz inork ebatsi ezingo digun

objektu baliotsu bakarra zara, oi, iragana

Zer inporta dio lapurretak

Eta umea jaio egin zen

apenas intziri bat

lehen arnasaldian

baina nori inporta zaio

detailtxo hori.

Gero bilatu egin zuen

jakinduria zahar bati jarraituz eta

aurkitu egin zuen goxoa baina

nori inporta zaio goxorako jakinduria

hori.

Lasai zegoela beroan

ongi asko adierazten zuen

behar zuen horri bildua

baina nori inporta zaio zein den

ongi izanaren tenperaturak

duen bibrazioa.

Umeak

irribarre zabalarekin

eskeintzen du orain bere jolasa.

Nori inporta zaio.

L)

marta sanchezen abestiak

eta conchita piquerrenak

nota bat gorabehera

triste jartzen dute oso

desesperatuta dagoela zinez pentsa

ilea bilduta eramaten duten

emakumeen omenez

jose de bilbao al teléfono

no se vaya no que ahora le dan el número

correspondiente para el sorteo se

realiza bajo notario por supuesto

on gizonak gara gizakiak gizon andreak

andre gizonak humanoak

eta ez daki ondo zer esan baina

valeriana bat si us plau

emakume normala naiz

erretzeari utzi nion hogeigarren mendean

baina desesperatuta nago aizu

gure maitasuna

lapur batek lapurtutako

esmeralda bat da

Askatasun kalean

Zinpeko berria destinatu dute
Askatasun kaleko Eroskin.
Aurreko zinpekoak ez zuen
adi eta ganoraz lan egiten.
Bere patxadaz eta pasibitateaz
lasaitasuna segurtatzen zuen saltokian.

Gaur Askatasun kaleko Eroskin
sartu naizelarik, belarrietan kaskoak,
keinua egin dit zinpeko berriak.
Ezikusiarena egin dut.
Esnekien sailera joan naiz,
jogurtak eta gazta hartu ditut.
Zukuen eremuan saskiratu ditut
olibak, dilistak, pasta freskoa.
Zinpeko berriak keinuak egin dizkit.
Ezikusiarena egin dut berriz.
Orduan fisikoki ukitu nau eta
nik kasko bat kendu dut esateko:
«Zer demontre gertatzen da!».
Eta zehaztu dit: «Barkatu baina
zakuak sarreran utzi behar dira».
Bizkarrean daramat zakutoa.
Zakutoa kentzeko keinua egin dut.
«Zerbait ostu dudala uste al duzu?

Begiratu barruan». Ez du begiratu.

Ez dut zakua sarrerara eraman.

Atzetik segitu nau, hamar bat metrora.

Laboreen zonaldean so egin diot.

Begirada behehitu du. Gerturatu eta

lotsarik batere gabe galdetu diot:

«Zerbait lapurtzekotan nagoela uste duzu?».

Ezetz erantzun dit: «Kontua da lehen

jendeak laboreetako jostailutxoak

ebasten zituela, baina orain gailetak».

Harrituta eskatu dizkiot azalpenak:

«Jostailutxoak ebatsitakoan ez zenituzten

zakutoak miatzen, baina orain erregistratu

egin behar gaituzue gailetak ostuz gero?».

«Bai, halaxe da» esan dit. «Ados» esan diot.

Askatasun kaleko Eroskin

zinpeko berria destinatu dute,

Europako Banku Zentralak bidalia,

Askatasun kalean austeritate plana

tentuz garatzen ari ote diren neurtzeko.

4. geltokia

Ekhiñe Eizagirre	1. Inorentzat izan barik gaiztoa
Leire Bilbao	2. Segundo bakoitza
Omar Nabarro	3. Telebistarik gabe hazi zen...
Pako Aristi	4. Kliskadak
Xabier Montoia	5. Lapurreta

Inorentzat izan barik gaiztoa

Inorentzat izan barik gaiztoa
erdi bi egin zidaten bihotza
sartuta bertan ankerki haiztoa
kupidagabea bezain zorrotza.

zelan moldatu ohi suak ezkoa
hala neu orain, bizirik hilotza;
etxetzat eman didate ghettoa
neurean bilakaraziz arrotza.

hilobiak bai dira hemen ttukun
bestean gaude eginda aspaldi kale,
zoriona gugandik zein urrun.

esku zuridun hainbeste lapur
eta gu apurren baten eskale;
ez zaituztet penaz utziko, egun.

Segundo bakoitza

Erloju orratzen

kontrako norantzan

egingo dinagu iraultza.

Ez atzerantz, beste alderantz.

Denborak zentzurik gal ez dezan

hitzordu klandestinoak

adostuko ditinagu

amets periferikoetan.

Eta gure gorputzek bat egitean,

azalak azala ukitzean,

begiradak lapurtuko zizkionagu

segundo bakoitzari:

minutuei musuak,

orduari zentzua.

Denbora plazerez

irauliko dinagu.

Telebistarik gabe hazi zen belaunaldi bat existitzen da

Telebistarik gabe hazi zen belaunaldi bat existitzen da oraindik gure artean,
eta horietako inork ez luke gaurko haurra izan nahi.

Gauza guztiak bene-benetakoak ziren:

hildakorik ez zenuen ikusten etxean norbait hil arte,
baina benetakoa zen hilkutxan zegoena.

Denbora pasatzea zure irudimenaren esku zegoen.

Jolasak antolatu behar ziren lagun artean.

Eta gaur hainbat zoritxarren albisterik
ez zen iristen etxeetara.

Horregatik diote haurtzaro zoriontsua izan zutela.

Belaunaldi horretako inork ez du gogoan
umetan aspertzen zenik.

Txandaka hitz egiten badakite, jendea agurtzen lekuetan.

Gaur egun ikusten duzun adina idiota
ez zuten ikusiko bizitza osoan.

Zure orduak kanpotik

antolatuko zituen tresnarik gabe,

zeure baitatik mamitu behar zenuen denbora.

Gero telebista asmatu zuten aspermenaren kontra,
eta gaurko haurrak

telebista ikusten ere aspertu egiten dira.

Jostailuekin bi egunetan aspertzen dira.

Gurasoekin mahaian bazkaltzen aspertu egiten dira.

Gaitz larri bat eragin dugu haiengan:

irudimena lapurtu diegu, altxorrik ederrena.

Eta hori gabe bizitzen ikasi beharko dute.

Kondena horren sinboloa baino ez da telebista
gaur eguneko haurtzaroan.

Kliskadak

Herentzian jaso ditudan oinokin

ibili gura zintuzket

ez bazaizkit urruti joaten

ez badidazu pausoa lapurtzen

hurreratzen naizenero

Herentzian jaso ditudan eskuokin

haztakatu nahi zintuzket

dunak sortu zure azalean

oasiak bilatu zure lehorrean

Herentzian jaso ditudan begiokin

ez dut zure iragana ikusten

geroa irakurri nahi nizuke ninietan

baina hodeituak dituzu

gautzen doaz kliskada bakoitzeko

Herentzian jaso ditudan herentzia guztiokin

nire begietan itxuraldatzen zara

zure begietako hodeien antzera

Lapurreta

Hipermerkatuari esker bizi gara eta,
lapurtuz gero, guri ere ari zaizkigu lapurtzen.

Halakoak, lotsarik gabe ahal
duten guztia osten diotenak. Lapurrak.

Hipermerkatuaren hierarkian dugun
posturen arabera lapurtzen du gutako
bakoitzak. Gozokiak, gauza txikiak beti:
txokolatea, pilak, paperezko zapiak...

Ez naiz horretaz harro, baina damu ere ez.
Niretzat, lapurretak baino, ekintzak dira, a
halguztidun bati sabotaje mota bat,
politikoa. Hori uste dugu behintzat.

Gezurretan ari naiz? Ziur. Baina gezurrak
beharrezkoak dira. Errealitatearen
erauntsi bortitzetik babesten gaituzte eta.
Noski. Bestela elkar akatuko genuke.

Egiak ertz zorrotzak. Zauri gaiztoak ditu
eragiten. Horretaz gogoratzeko, neure
gorputzaren orbainei begiratu eta kito.
Hala ere, gezurra beste behar duguna
egia, norberaren egia txikia da.
Jakina, beste egiak ez baitira errautsak
haizetan baino gehio. Hala gure egia
txikia, nola gure gezur handiak ere.

Zein da nire egia? Sarri galdetu diot
neure buruari, eta nago bizitza dela.
Osoki bizitzea, ez bizirautea, nik
egiten dudan hori. “Hil arte bizi,” amak
esaten zuen legez. Ederra, alajaina.

5. geltokia

Alfonsina Storni	1. Munduko gobernariei abisua
Damian Pedrosa	2. Beldurraren arrastoa
Gloria Fuertes	3. Injustizia
Iñigo Astiz	4. Audiogida
Joxe Kruz Aranberri	5. Lapurreta

Munduko gobernarietara abisua

Txit Prestuak Zaretenongana jotzen dut
zuei esateko nire auzunean izurria dagoela,
eskale guztiak zubi apurtuaren azpira
etorri direla babes bila,
—beroa iristen denean eromena izango da—.

Badirudi zerbait antolatu nahi dutela
etxe bat ematen ez dien Alkatearen kontra,
gaixorik daude eta kobazuloetan lo egiten dute
eta puskatxoak erortzen zaizkie lotan daudenean.

Diote gauren batean zuen hilobietara
joango direla... loreak eramateko
eta nik abisatu egiten dizuet Txit Prestuak Zaretenoi
bakezalea naizelako eta ez naizelako ausartzen
hori isilaraztera zuzen ari direla uste dudan arren.

Abisatzen dizuet Txit Prestuoi arriskuan zaudetela
jende hori mozkortuta dagoelako.
Ezer ez du balio eman berri den bandoak,
ezer ez tabernetan ardoa ez zerbitzatzeak,
ezer ez dendetan ogia egoteak,
ezer ez desfileak debekatzeak,
ezer ez berbena geldiarazteak,
hobe duzue eskaleak eurak bertan behera uztea.

Beldurraren arrastoa

Orain hiru aste

etorri zitzaizkigun lapurrak

etxera bixitan.

ez zuten askorik eraman:

Diru gutxi, liburu pare bat,

eta gerturako betaurrekoak.

Irakurtzeko beharko al ditu?

Sari txikiak

itzal handia du ordea:

Beldurraren arrastoa utzi du gurean

Eta berriro badatoz bakarrik naizenean?

Ordu ona ote da etxetik irteteko?

Zergatik etorri zait gaur hain sinpatiko alboko bizilaguna?

Eta zergatik egin du ez ikusiarena

Arantxaren gizonak

bere zakurrak zaunka egin didanean?

Dirua ondo gorde al dut alfonbraren azpian?

Orduz geroztik

noraezean bizi gara

ohartu gabe

batez ere

askatasuna lapurtu zigutela.

Injustizia

Hamar urte nituen orduan.

Sos batzuk lapurtu

zituzten amaren diru-kutxatik.

Igandea zen... Gogoan dut!

Errudun jo ninduten,

injustuki, eta nire lotsari

egindako erronka hementxe,

barru-barruan, iltzatu zitzaidan.

Gogoan dut gau hartan

nire ohatzean etzanda

anarkia-ernamuin bat heldu zela

nire burmuinean inizatzeraz.

Audiogida

Pentsatzen dut museoko segurtasun kamerek

erregistratuko zutela zure jainko gihartsuen

aurkako duela pertsonala, baina gero,

lapurretarik gertatu ezean behintzat,

galdu egingo dela betirako garaituta

Zeusen bularraldetik begirada lurrera

apartatzeko egin duzun keinu dotorea,

eta penaz hartu dudala aitortu behar,

nahiz erakutsi didan oraindik badela

tarte bat gizatasunerako, ahanzturarena;

inguruak eta belarrira hain gozoki

mintzo zaigun audiogidaren ahotsak

bestelakorik adierazi arren, hori badela

askatasunerako nahikoa espazio.

Baina ez da hori garrantzitsuena,
horri buruzko ezer esan ez dizudalako,
bi urratsetan lau mende aurreratzearen
plazer ezinbestez zaintzapeko eta bihurria
ez zapuztearren, pozik baikabiltza,
eta hori da egia, Babiloniako piezetatik
Egiptokoetara saltoka eta tarteka
eraikina eraberritu zuen arkitektoari adi
II. Mundu Gerran bonbek zimenduetan
eragindako kalteei buruz hizketan ari dela,

sineste bidean kasik denborarena
sarrera truke desegin daitekeen
beste gezur horietako bat baino ez dela,
harik eta exit seinaleak eta gero souvenir dendak
hiri erdiz ezezagunera bota gaituen arte,
elkarrekin eta gazte bai, baina —jadanik
audiogidaren oharrik gabe— mundu
berriegi honetan lehen baino galduago.

Lapurreta

Dena denontzat, jabegorik ez,
anarkistentzat kapitalismorik ez,
jabetza lapurreta dela aipatzen dute,
bizitzeko beste modu bat konkistatzera behartzen gaituzte,
Nietzscheren gizaki berria umea izatearekin lortzen baita.
Umeak bizi dira jolasean, gu dena erosten aldi berean,
gauza guztiek jabea dutelako haien balioa diru bihurtzen dute,
gehiago duenak besteak aukerarik gabe uzten ditu bitartean.
Lapurreta immorala, baina ikuspuntu guztietatik legala.
Eta badira lapurretak onak, orduan zer?
Aberatsei zerbait kentzea lapurtzea da?
Jesukristo bera lapur onaren ondoan hil zen
eta zerua eskaini zion,
agian zerua lortzeko asmoz gaurko israeldarrek
palestinarrei lurra lapurtzen jarraitzen dute?
Noraino lurra eta lehengaiak pilatu,
banketxeek dirua metatu?
Noiz arte gure lanaren truke soldata eskasa,
gure bizitza duinaren lapurreta legala?

Testu hauek
Hernanin irakurri ziren
jendaurrean
2018ko azaroaren 18an
Lapurreta izeneko
ekitaldian

